

# PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

“Ezagutu zure iragana, bat egin orainarekin eta sortu zure etorkizuna”

*Discover your roots* proiektuarekin bat egitea aukera paregabea da zure arbasoen jaioterriko herrialdeak bisitatuz, bertako kultura eta ohiturak ezagutuz eta pertsona bezala asko haziz, bidaiatzearekin batera zure iraganaren berri izateko.

Sortu dugun enpresa honekin bidaiak modu ezberdin eta original batean eskaintzea dugu helburu. Bezeroei haien jatorriari buruzko datuak ateratzeko ADN analisi bat egin eta emaitzen arabera bidaia bat egingo diegu, hau da, haien arbasoen jaioterrietako herrialdeetatik bidaia bat antolatzean datza gure proiektuak. Honela, gainontzeko herrialdeekiko ditugun aurreiritziak alde batera uztera, bertako kulturak eta ohiturak ezagutzera eta gehiago bidaiatzera bultzatuko ditugu bezeroak. Bulegoak, telefono zenbakia, web-orria eta e-mail bat ere egongo dira eskuragarri edozein zalantza argitzeko eta baita bidaia bezeroaren gustura antolatzen hasteko ere. Bidai bezeroaren neurria egongo da eginda eta prozesu guztian zehar bere ondoan egongo gara edozertarako.



= Discover your roots